

KULTURA ITXAROPENA ABESBATZAK JENDEA BEHAR DU · GEHIGARRIA KILIBARREN  
BERBETAN JESUS MARI ETXEBERRIARI ELKARRIZKETA

# BARREn

ASTEKARIA

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A · 2004ko urriaren 29c/XII. urtea/506. zkia

TOMAS ARANBERRI, MISIOLARIA

*"Peruko biztanleen %54a eguneko  
2 euro baino gutxiagorekin bizi da"*

*"ABERATSEN NEGOZIORIK ONURAGARRIENA POBREEN ARTEKO BORROKA DA" (Eduardo Persico)*



# ETXEBIZITZEN SALMENTA

ETXEBIZITZAK  
APARTAMENDUAK  
DUPLEXAK  
LORATEGIDUN DUPLEXAK  
GARAJEAK  
MERKATARITZA LOKALAK



MAALA  
BIZIGUNEA



Salmenta bulegoa:  
Bernardo Ezenarro, 2

 **943 740 858**

Eraikitzailea:



Sustatzailea:

**URTAGO  
PROMOZIOAK, A.I.E.**

# ZEZEN-BIDE

## AUTO ESKOLA



Kotxerako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** teoria ikasteko gela berria!



### ORDUTEGIA

**10:00**etatik-**12:30**era

**15:00**etatik-**20:30**era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**

Tel. 943 742 720  
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behe**

(San Andres pasealekutik)  
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



**Amanda**

Gaztetxotan zapata kaxa batekin bideo aparailu bat eraiki zuen Erikek. Astebete eman zuen krispetak erosteko dirua aurrezten eta igandetako arropa zuen soinean (adabakirik gabeko prakak eta bi oinetan kolore bereko galtzerdiak) etxeko argi guztiak itzali zituenean. Bi, guztira. Aspalditik zituen aukeratuta pelikula eta neska. Amanda eta Eleonora.

Etxeko labana luzeenarekin egindako zulo irregularrean sartu zuen bideo zinta beltza, eta errotulagailuz margotutako play teklari eman zion. Besoa pasa zion lepo gainetik Eleonorari eta libre zuen eskuarekin palomita zuri potolo bat jarri zion ezpain gorrietan. Gero, isilik eman zituzten pelikulak irauten zituen ordubete eta berrogeita hamazazpi minutuak.

Horrela topatu zuen amak Erik: koadrorik gabeko zementozko paretari adi begira, beso bat hutsunearen lepoa laztanduz. 'Gustatu zaizu?' galdetu zion. Erikek inoiz ikusi zuen filmerik ederrena zela erantzun zion, eta Eleonorari ere asko gustatu zitzaiola.

Erik ingeniaria da gaur egun eta aste hontan etxeko labana luzeenarekin neskalguna hil du koadroz betetako etxeko salan filme bat ikusi ondoren: Amanda. Ez zaio filmea batere gustatu, ezta ordubete eta berrogeita hamazazpi minutuan bere ondoan isil-isilik egon den neskalgunaren izena ere: Jenny.

Suediako egunkariak ez dute zapata kaxari buruz ezer esaten.

Uxue Alberdi



**Botilari begira**

Botila erdi hutsik edo erdi beterik. Inpresio horrekin gera gintezkeen 25 urte hauetan Estatutu eta Amejoramenduaren balorazioa egiterakoan. Baina, hemen ere, egindako hausnarketa nondik abiatzen den jakitea funtsezkoa da geroko azterketa ulertzeko.

(Espainia bat eta handian sinisten duena, eta ni neu, adibidez desberdina dugu abiapuntuztat, ideologia eta beraz, hausnarketa). Gure burua abertzale edota ezkertiar jotzen dugunok Euskal Herria jarri beharko genuke abiapuntua: urte luzeetan Frantziar zein Espainiar Estatuak zapaldutako herria, bere hizkuntza galtzen ari dena, botere politikorik gabeta bere etorkizunari aurre egiteko. Alde honetatik begiratuta, Euskal Herriaren biziraupenerako minimoetatik alegia, Estatutu eta Amejoramenduak Nafarroa eta Baskongaden arteko urruntze bat ekarri dute, herri bakar bezala aritzeko ez dute ezertan lagundu, euskararen normalizazioan apenas aurrerapausorik ekarri duten, ekonomia, azpiegitura, harreman laboraletan Madrilek eta Parisek markatutako gidoia jarraitu besterik ez da egin. Gure erabakitze ahalmena bahitu digute, gatazka politikoa areagotu egin da.

Bada garaia egoera hauek gaitzitu eta zerbait berrirantz pausoak emateko. Gatazka konpondu, euskararen normalizaziorantz pauso erabakiorrak eman, inbertsio, azpiegitura, lan harremanen arloan Euskal Herria erdian kokatzeko ordua. Horretarako akordio zabal bat lortu behar dugu. Lurraldetasuna (zazpi probintzia) eta herri galdeketa inguruan posible dugun akordio zabal hori lortzea. Duela 25 urte posible izan ez zena orain posible izan dadin.

Pello Mendizabal

asteke notizria

Kexak.....5

motZ MotZ.....8

gehigarria .....13

kiROLak.....20

aGenda.....24

Aial hauek ez dira BARRREN editorrialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratu dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratu du.

## ELKARTZEN: ESKUBIDE SOZIALEN ALDEKO PLATAFORMA NAZIONALA

Gure gizartean ezberdintasun ugari eta bistakoak daude, eta horien artean bazterketa soziala da bai adinekoei eta baita gazteei ere eragiten diena, guztion eskubideak urratzen ditu.

Sistema kapitalistak aberastasuna gutxi batzuen eskuetan uzten du, pobrezia sendotzen du, eta era berean, bazterketa hedatzen du. Pobrezia munduan, eta hortaz, Euskal Herrian zabaltzen doa.

Eskubide sozialak gero eta gehiago ari dira murrizten. Lan eskubidea, lan kontratu duina izateko eskubidea, prestazio sozialak jasotzeko eskubidea, zerbitzu publikoen onuradun izateko eskubidea... murrizten ari zaizkigu.

Pertsona guztiek behar dugu diru sarrera minimoa, irabazi edo prestazio bidez. Une honetan, beste batzuen artean, ondorengoaren alde borrokatu behar dugu: per capita errentaren %50 irabaztea gutxienez, prestazio guztiak pobrezia gainetik egotea, soldata soziala lortzea, pentsioak eguneratzea, etxebizitza eskubidea.

Etxebizitza izatea eta erabiltzea denon eskubidea da. Kontuan hartuta, alde batetik gaur eguneko lan baldintza prekarioak eta bestetik etxebizitza prezio espekulatiboak, pertsona askorentzako ezinezkoa da etxebizitza erosi edo errentan hartzea. Administrazioak egiten dituen etxeak, dirua denona denez, publikoak izan behar dute, honela, Etxebizitza parkea osatuko litzateke. Honekin batera, agerikoa da alokairua bultzatu behar dela, etxebizitza hutsen erabilpena bultzatu behar da, administrazio publikoak parte hartuz.

**S.Z 14239867 - M.O. 16264506**

## MINGAINA KANPORA!!

Hankak zabaldu, hankak okertu... Eskerrik asko, Atxutxiamaikari, guztiagatik. Mila esker gure seme-alabek eta guk, gurasoak, jolasean pasa ditugun ostiral arratsaldeengatik.

Irribarrez beteriko arratsaldeak izan dira, eskulanez jantzitako arratsaldeak, eta, batzuetan, zergatik ezkutatu, gurasooi lotsa pasarazi diguten arratsaldeak. Baina, azken finean, arratsalde magikoak izan dira umeentzat. Kiribilen arratsaldeak izan dira; umeak baino handiagoa den karakolaren arratsaldeak. Baina, handiagoa izan arren, jolaserako edo, besterik gabe, eskua emateko makurtzen den karakolaren arratsaldeak izan dira.

Pailazoen arratsaldeak, Mokolok eta Poxpolok bisitatu gintuzten azken ostiralekoa modukoak.

Egia da herri honetako umeek ez dutela parke bat bera ere jolasean jarduteko. Madalako parkeaz ez dakigu ezer ere, eta gainontzeko parkeak txikiak dira, zikin daude, eta, gainera, haien mantenua hutsaren hurrengoa da.

Nire alabak eta nik, beste askok moduan, Kiribilka programa datorren urtean ere martxan jartzea espero dugu. Baina urte osoan zehar izatea gustatuko litzauguke, neguan ere bai. Baina horretarako dirua behar denez, horrelako jarduerentzat dirulaguntzak handitu behar direla uste dut. Izan ere, Elgoibarko neska-mutilentzat dira jarduera hauek, eta, gainera, gure hizkuntza, euskara, indartzeko eta zabaltzeko balio dute.

Mingaina kanpora... trikitita... trikitita, ta... ta ...

## EAJ-PNVtik ELGOIBARKO HERRIARI

Ostegunetako merkatuaren kokalekua aldatzearen ondorioz (Elgoibarko Udalak herriko alde zaharra berpizteko planaren barnean kokatu beharko duguna hain zuzen), eta alderdi politiko baten asmo txarreko oportunitate politikoak aprobetxatuz sortu den egoeraren aurrean Elgoibarko EAJ-PNVko zuzendaritzaren izenean ondorengo hau jakinarazi nahi dugu:

1.- Gure babes osoa ematen diogu EAJ-PNVko udal taldeari eta bereziki gure herriko alkateari, dohako zeresan eta zurrumurru faltsu asko zabaldu baitira berari buruz, eta zabaltzen dituenak berretsi gabekoak gainera. Bestalde, gure konfidantza osoa eman nahi diogu Udal talde honi Elgoibarko herriarekin egun batean hartu zuten konpromisoarekin aurrera egiteko.

2.- Ziur gaude azokarentzako kokaleku berria proposatzerako orduan gure udal taldeak ez duela interesik bilatzen, gaur egungo kokapenak dituen hutsuneei irtenbidea bilatzeko asmoa duela, besterik ez. Era berean, kokaleku berri honekin azokak irabazi egiten du, leku zabalagoa izanik hazi eta handiagoa izateko aukera baita, zamalanetarako erraztasun handiagoa izango baita, pertsonok errazago ibiltzeko aukera izango baitugu, merkatarietako zein bezeroentzako parkina ere izango baitu, etab. Gainera, berrikuntza bat ere izango da kokaleku honetan, hau da, estalita egongo dela, horrek dakarren onura guztiarekin bai azokara begira eta baita beste ekitaldiren bat egiteko orduan ere. Udalaren ardura irtenbideak bilatzea da zuzenean edo zeharka alderdi guztiak kontuan izanik: merkatariak, bezeroak, bizilagunak, herriko merkatariak, garraiolariak, garbitasun zerbitzuak etab.

3.- Einbiou izeneko ilegalizatutako alderdiak zabalduetako eskuorri edo panfletoari buruz Elgoibarko herritarroei ondorengo hau adierazi nahi dizuegu:

- Ez da gure alderdia izan ilegalizatu dituen, beraiek hori eman nahi badute ere aditzera.

- Hainbat batzordetan parte hartzeko eskaera egin zuten. Adostasun batera iritsi ginen beraiek eskatutako batzordeetan parte hartzeko -hitzarekin baina botorik gabe- honelako kasuetan ez baita legezkoa botorik izatea, eta gainera beste alderdi politiko batzuekin istiluak izateko arriskua baitago. Aurrerantzean ere bilerak egitea adostu genuen lanean jarraitzeko eta hiritar guztion ordezkarietza bideratzeko.

- Erabakitzen den guztiaren inguruko informazioa eskuratzen zaie: bilera deiak, aktak.

- Ez zaie zailtasunik jartzen informazio hau lortzeko, informazio hau udaltzaingotik hartzea zailtasuna iruditzen ez bazaie behintzat.

- Edozein udal taldek izan dezakeen informazioa dute eguneratuta.

Honek guztiak ondorio batera garamatza, hau da, bere horretan jarraitzen dutela, nahasmena sortzeko gogo handiagorekin laguntza emateko baino, beraz, orain artekoak ikusi ondoren tentu handiz ibili beharko gara herritarrik ez dezaten engainatu eta manipulatu berriz ere.

EAJ -PNVren izenean Elgoibarren onerako lanean jarraitzeko konpromisoa berresten dugu.

**Eider Cerdeira (alaba) eta Imanol Cerdeira (aita)15.374.523-N**

**Elgoibarko EAJ-PNVko Uri Buru Batzarra**




**KEXAK**


◆ Herritar batek azaldu digunez, **Madalako errotondako hainbat semaforo izorrotuta daude**: “Madalako errotondako bi semaforo gutxienez izorrotuta daude. Ez dute argi gorririk eta laranja-argi ematen, eta beste batzuei argi berdea falta zaie. Beraz, begira egon behar da errepide erdian dauden semaforoen kolorea noiz aldatzen den, besteak zein koloretan dauden jakiteko. Auto asko ibiltzen da errotonda horretan egunero, eta istripu larriren bat gertatu aurretik, semaforo horiek konpontzea komeni da”.

◆ Begira nola aurkitu genuen gure erredakzio aurrean dagoen pilak biltzeko kontenedorea. Ez da lehenengo aldia, **behin baino gehiagotan aurkitu dugu pila kontenedorea puskatuta**, eta pila guztiak lurtean botata. Gainera, errekarara doan ubidera jausten dira askotan, eta hori oso kutsagarria da. Pila kontenedorea konpondu edo beste tokiren batean jarri beharko litzakete.


**TXALOAK**

◆ Herritar batek **Kokoe Komiki Elkarteak txalotu nahi du**, berriz ere, erakusketa bikaina antolatu duelako: “Ez da erraza Elgoibar bezalako herri txiki batean komiki lehiaketa antolatzea, eta txalo bero bat merezi duzue. Orain gainera, urtero antolatuko duzue, eta komikizaleok benetan eskertzen dugu. Jarraitu horrela!”.

◆ Herritar batek, **joan zen astean Aitor Zabaletak idatzitako eskutitzean Elgoibarko hizkera erabili izana txalotu nahi du**: “Detaile oso polita iruditu zitzaidan, eta bide batez, herritar guztiak animatu nahi ditut, herritarrentzako idazten dutenean, elgoibartarrez idaztera”.



ASTEKARIA

# BARREN

Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

Publicitatea:

☎ 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-posta:

barren@topagunea.com

Helbide informatikoa:

www.topagunea.com/barren

ARGITARATZALEA


Elgoibarko Izarra



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Ainhua Andonegi KAZETARIA Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue ZUZENTZAILEA Unai Villena KOLABORATZAILERAK Esther Gurrutxaga, Jasonne Osoro, Ainhua Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.275 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



**Pintxoetan aukera zabala**

P. Muguruza, 7 Tel: 943 74 16 76

# “Hezkuntza aldaketarik ez badago oso zaila izango da Peru zuloatik”

*Tomas Aranberri Elgoibartarra, San Vitorreko kidea dugu eta lau urtez aritu da lanean Peruko Yungai hirian. Euskal herrian dagoela aprobetxatuz, Peruko haur eta emakumeen alfabetizaziorako dirua lortzeko kanpainan laguntzen dihardu.*

## Zenbat denbora igaro duzu Perun?

Hiru urte eta zortzi hilabetez egon naiz Perun. Mendilerro zuri eta beltzaren artean, “Callejon de Boilas” izeneko bailaran, Guarazetik 60 kilometrora, Yungai hirian, hain zuzen ere.

## Zein izan da zure eginkizuna?

Normalean, parroki edo ikastetxetan egiten dugu lan, baina, Perun gizarte hezkuntzan, eta bereziki gizarte lanean aritu gara. Norabide askotan jardun dugu: emakumeekin, gazteekin, nekazaritza munduko jendearekin, irakaskuntza arloan...

## Erakunderen batekin lanean aritu al zara?

Viatortarrek Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE) bat daukagu Euskal Herrian, Serso izenekoa. Elkarte honen ordezkaria izan naiz Perun eta komunitate moduan egin dugu lan. Azken finean, GKE izan beharra daukazu dirua eskuratzeko. Honexegaitik, bi GKE sortu genituen bertan.

## Nolakoa da Peruko egitura ekonomikoa?

Peru hiru zatitan banatuta dago: kostaldea, oihana eta mendialdea. Oihanean ez da jende gehiegirik bizi. Kostaldeko biztanleak berriz, jatorriz mendialdekoak dira. Mendialdeko jendea nekazaritza bizi da. Kostaldekoek bestalde, badituzte lantegi txiki batzuk. Batez ere, “ekonomia ezkutua” deritzona litzateke ekonomiaren funtsa. Peru oso lurralde txiroa da. Era berean, bere aberastasuna meatzaritza aldetik kanpora doa. Enpresa handienak atzerrikoak dira, kutsadura sortzen dute eta irabazi gehiena kanpora bideratzen da. Eraikuntzan ere zertxobait lan egiten da, eta trapitxeoa ere badago.

## Nolakoak dira beraien bizi-baldintzak?

Orokorrean esan ohi da, Peruko biztanleriaren %54a, eguneko 2 dolar baino gutxiagorekin bizi dela, eta %24a berriz, dolar bat baino gutxiagorekin. Mendialdean, bi dolar baino

gutxiagorekin, %87a bizi da eta, %40a pasak, dolar bat baino gutxiagorekin dirau. Liman oraindik ere, bi miloi pertsona inguru txaboletan bizi dira.

## Zeintzuk dira Peruk dauzkan arazo nagusiak?

Alde batetik, arazo ekonomikoak dauzka, oso lurralde pobrea baita. Bestetik, arazo kulturala legoke, oso matxista da. Hango herrixketan, erabakiak hartu behar direnean, emakumeek ez dute parte hartzerik. Ildo beretik jarraituz, oso nabaria da bortxakeria fisikoa nahiz sexuala. Gainera, emakumezkoak gizonarekiko menpekoak dira bizitza osoan.

Hirugarren arazo bat, hezkuntzarena litzateke. Yungai probintzian, biztanleriaren %34a analfabetoa da. Zifra hori, lehen hezkuntzako 1. 2. edo 3. mailan eskola uzten duten haurrek areagotzen dute. Batik bat, nekazal munduko haurrak izaten dira; etxekoek horretara bultzatu ohi dituzte edota beraiek ikasteko gogorik ez dutelako nekazal lanetara jotzen dute. Aitzitik, kostaldean egoera zertxobait hobea dela iruditzen zait.

Egoera politikoari dagokionez, demokrazia batean bizi direla diote. Baina, nik uste dut, Peruko demokraziaren oinarria, korrupzioa edo ustelkeria dela.

## Zeintzuk dira gaixotasun hedatuenak?

Desnutrizioa garrantzitsua da gu izan garen lekuan; %60a iristen da umetxoetan. Honez gain, beren elikadura bitaminetan oso urria da. Elikagai nagusiak patatak, arroza, artoa eta fideoak dira.

Eltxoekin lotutako gaixotasunak ere badira: malaria eta dengea. Beste bi gaixotasun, bartolena eta lismianiasa dira. Lismianiasa, lepra zuria da; pixkanaka aurpegi edo besoetako haragia jaten joaten



**“Peruko kultura oso matxista da, erabakietan emakumeek ez dute parte hartzerik”**

# O, ateratzea”

dena. Gaixotasun honi aurka egiteko, txerto bakoitzaren salneurria hemen dolar erdikoa den bitartean, han hamabi dolarretakoa da.

## **Zeintzuk dira urte hauetan emandako aurrerapausoak?**

Aurrerapauso handirik eman dugun jakitea zaila da, baita egoera aldatzea ere. Garrantzitsuenaren jendeari bere prozesuetan laguntza eskaintzea da. Arazoak izan ditugu politikoki “mesa de lucha contra la pobreza” izeneko ekimenean parte hartu dugulako. Ni izan nintzen probintziako koordinatzailea eta arazoak izan nituen bi alkaterekin. Azken finean, botere publikoak, dirua berari interesatzen zitzaion gauzetan gastatzeko behar zuen eta ez bestelako kontuetan.

## **Ba al dago baliabide nahikorik herrialde honen garapenerako?**

Ekonomikoki egoera dagoen moduan egonda, zaila da. Batetik, kanpo zorra ordaintzeko dirutza handia erabiltzen dutelako eta bestetik, asko behar delako hezkuntzan. Hezkuntza gastatzen dena oso gutxi da. Irakasle gehienak klasera ez dira joaten edota beste lan bat izaten dute, ez direlako hilaren amaierara iristen. Proporzionalki esaten dute, irakasle batek, orain dela hogeita hamabost urte baino, hiru aldiz gutxiago irabazten duela. Hezkuntza aldetik ez badago aldaketarik, oso zaila izango da Peru zulotik ateratzea.

**“Gero eta pertsona gehiagok egingo du alde beren herrialdeetatik bizimodu hobeko baten bila”**

## **Gobernuak inplikatzan al dira ekimen hauetan?**

Gobernu lokal batzuk kenduta, gainerako gobernuak ez dira inplikatzan. Udaletxeetara diru gutxi iristen da. Peruko errepide gehienak lurrezkoak dira, ez dago azpiegiturarik. Jendea oso banatua dago mendialdean eta honek ez du laguntzen.

## **Peru urte dezente igaro eta gero, zer nolako balorazioa egiten duzu?**

Pozik nago. Azaroan berriz ere, beste hiru urtetarako noa Perura. Oraindik ez dakigu nora zehazki. Izan ere, 3 urte eta 8 hilabete egon ostean, Yungaitik irtetera bultzatu gintuzten. Botere politikoak bildu ziren erabaki hau hartzeko: Yungaitik alkate probintziala eta apezpikua. Ez zuten gogoko gure egiten genuen lana. Guk ez genuela ebangelizatzen zioten, lan soziala egiten genuela bakarrik. Aldi berean, herri komunistak ginela esaten zuten.

## **Gehitzekorik?**

Gero eta pertsona gehiagok beren herrietatik alde egingo du bizimodu hobeko baten bila. Honenbestez, kanpoko jendea onartzeko deia luzatuko nuke, euskaldunok ere nahiko emigrante izan baikara. Mundua hobetzen saiatzeko ekimenean, bakoitzak jakin behar du nola jokatu.

Esther Gurrutxaga



## 173.000 eurotik gora inbertituko ditu Udalak haurrentzako parkeetan

Herri erdiguneko parkeez gain, auzoetako parkeak ere berrituko dira

**E**lgoibarko Udalak herri erdiguneko eta auzoetako haur parkeak berritzeko proiektua atera du lehiaketara. Proiektu honetan, Madala, Leku Eder, Erretxindi, Sigma, Santa Klara, Urasandi, Altzola eta San Pedroko parkeak berritzea aurreikusten da, eta Mintxetan parke berri bat egiteko asmoa dago.

Udalak erabakita dauka dagoeneko, parke bakoitzean ezarriko diren jolas eta kolunpioak zeintzuk izango diren, hala ere, aldaketaren bat egon daiteke. Hirigintzatik esan digutenez, 8 urtera arteko haurrentzako parkeak izango dira. Kolunpioak egurrezkoak izango dira, eta lau hankatan ibiltzeko hodiak altzairu herdoilgaitzez egingo dituzte.

Bestalde, Madalako parkean haur ezinduentzako hainbat jolas ezarriko dira



### 173.000 eurotik gora

Herriko eta auzoetako parkeak berritzeko proiektuak 92.236 euroko aurrekontua dauka. Honetaz gain, parke bakoitzaren azpian kautxuzko zorua

ezarriko dute, haurrek minik hartu ez dezaten. Guztira 982m<sup>2</sup> izango dira, eta honen aurrekontua 81.304 eurokoa da. Beraz, proiektuak bere osotasunean 173.540 euroko aurrekontua izango du.

## Ordutegia eta zabalik/itxita txarteltxoak euskaraz 78 dendatan

GUREAN BAI - MERKATARITZA proiektuaren eskutik ordutegiak eta zabalik/itxita txarteltxoak euskaraz jarri dira Elgoibarko 78 dendatan.

Hainbat dendatan, dendariak berak jarritako txarteltxoak zeuden, beste batzutan gaztelaniazkoak eta ele bietara jarritakoak, eta txartelik gabeko dendak ere baziren. Denda horietan, txartelok euskaraz egotea errazteko, GUREAN BAI - MERKATARITZA proiektutik dendariei eskaintza egin zitzaion, eta guztira 78 dendak eman dute baiezkoa.



## Miski Elkarteak 2004ko kanpainaren bigarren zatia jarriko du martxan



Urriaren bukaeran hasiko da Miski Elkartearen aurtengo kanpainaren bigarren zatia. Lehenengo zatian 4.800 euro lortu zituzten, eta bigarren zatian ere, gauzak lehen bezain ondo aterako direnaren esperantza daukate. Kanpainaren helburu nagusia, dagoeneko eskolatuta dauden haurrek beraien ikasketekin jarraitzea da. Hala ere, biltzen duten dirua zenbatekoa den arabera, beharbada gauza gehiago egiteko aukera izango dutela kontatu digute.

Kanpainaren bigarren zati hau, kalean errifak salduz hasiko da. Honetaz gain, Elgoibarko ikastetxeetan "Ikasle bat, euro bat Cuscorako" kanpaina jarriko dute martxan, eta hainbat hitzaldi informatibo eskainiko dituzte. Azkenik, Miskitik jakinarazi digutenez, bazkide kanpaina oraindik zabalik dago.



## Komiki erakusketa urriaren 31ra arte ikusgai Kultur Etxean

IX. Elgoibarko Komiki Lehiaketaren sari banaketa ekitaldia egin zuen Kokoe komiki elkarteak joan zen barixakuan, hilaren 22an. 31 komiki lan aurkeztu dira aurtengo edizioan eta Kokoetik adierazi digutenez, gustura daude jasotako lanen mailarekin eta kopuruarekin, “Lehiaketaren oinarriak interneten jartzen hasi ginetik hainbat lekutako lanak jaso izan ditugu. Aurten esaterako Venezuelatik jaso dugu bat”. Aurtengo lehiaketa Laredoko Iñigo Ansolak irabazi du “El Código Tapies” lanari esker. Kantabriarra izan arren, arbaso elgoibartarrak ditu irabazleak, bere familia egun desagertuta dagoen “Villa Ansola” edo



Palmeren etxea gisa ezagunagoa zen palazioaren jabe izan baitzen. Lan guztiakin osatu duten erakusketa urriaren 31ra arte izango da ikusgai Kultur Etxean. Astelehenetik larunbatera: 19:00etatik 21:00etara. Igandean: 12:00etatik 14:00etara.

## Elgoibar BH Institutuko Euskara Mintegiak liburu didaktiko berria kaleratu du

Andres Alberdi, Anjel Ugarteburu eta Irungo institutuko Markos Balentziaga irakasleek LOGSE batxilergoko 1. mailarako “Euskara eta Literatura 1” izeneko liburu didaktiko berria kaleratu dute. Euskara mintegian duela 18 urte hasi ziren beraien liburu didaktikoak prestatzen, eta kaleratu berri duten hau laugarren edizioa da. Andres Alberdik azaldu digunez, “edukia berbera da, baina ariketak eta lantzeko testuak berriak ditugu, Euskaltzaindiaren arau berriak errespetatuz”.

Orain, batxilergoko bigarren mailarako liburua prestatzen ari dira, eta datorren urterako amaitzea espero dute.



## Ahozotasuna eta bertsolaritza

Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak ahozko komunikazioa bertsoaren bidez lantzeko egitasmoa jarri du martxan Elgoibarren. Udalak finantzaturako proiektua izango da, eta Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako proiektua izanik, Herri Eskola eta Elgoibar Ikastola sartu dira.

Proiektu honen bitartez lehen hezkuntzako 4. eta 5. mailako ikasleek astean ordubete eskaintzen diote ahozotasuna lantzeari, tresna bertsoa dutelarik. Hamabostean behin, Bertsozale Elkarteak izendaturiko irakasle bat etortzen zaie eta ordubeteko klasean bertsoak egin, ikasi, doinuak landu eta beste hainbat jarduera burutzen dituzte, ahozko komunikazioa landuz. Ikasturte amaiera aldera jaialdi bat antolatzeke asmoa dago

## Internet eta Posta Elektronikoa Ezartzeko Programaren 2. edizioa

Debegesak eskualdeko enpresa txiki eta ertainetan Internet eta Posta Elektronikoa Ezartzeko Programaren 2. edizioa jarri du martxan. Posta elektronikoa eta interneten erabilera seguru eta egokia izateko doaneko informazio eta aholkularitza jasoko da, eta teknologia berrien ezarpenari buruzko edozein kontsulta egin daiteke. Informazioa 943820110 telefonon, arantza@debegesa.com helbidean edo www.debegesa.com web orrian.



### ESKERTZA

2004ko urriaren 23an, 74 urte zituela hil zen  
**CONCHI ARREGUI ARREGUI**ren  
seme-alabak, bilobak eta gainerako sendiak,  
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



**Espainiako Gobernuak eta telebista-kateek, telebistako edukia zaindu nahi dute  
ume eta gaztetxoek ordutegian**

## TELEBISTAN BA AL DAGO MEREZI DUEN PROGRAMARIK?



### ANGELINA MORALES

68 urte, etxeandrea

Debateak gustuko ditut, eta ETB2ko pelikulak ere ikusten ditut. Kalitatezko zenbait programa badaude telebistan, baina kentzeko modukoak ere bai. Umeek ezin dute telebistan ematen den guztia ikusi.

### MERCEDES REY

34 urte, etxeandrea

Oso gutxi ikusten dut, ez dago aukera askorik programazioan. Umeen ordutegia zaintzea logikoa da. Gainontzekoek katez aldatzeko aukera daukagu, eta programa horiek gustuko dituenak ikus ditzala.



### PEDRO MARI ETXANIZ

51 urte, espezialista

Ez dut telebistarik ikusten. Pelikularen bat noizean behin, edo futbol partiduren bat, baina ez naiz telebista zalea. Umeen ordutegia zaintzea ondo iruditzen zait, umeek telebistatik gauza asko ikasten dituzte-eta.

### JORGE CID

16 urte, ikaslea

Ez dut telebistarik ikusten, ordenagailu aurrean pasatzen du nire denbora libre gehiena. Umeen ordutegia zaindu egin behar da, gaur egungo marrazki bizidunetan biolentzia asko dago.



### JUAN ANTONIO FERNANDEZ

22 urte, mekanizatu  
teknikaria

“Cronicas Marcianas” ikustea gustatzen zait, egunez ez dut telebistarik ikusten. Telezabor ugari dago, programa arrosak dira txarrenak, eta umeek ez lukete horrelakorik ikusi behar.

### ENERITZ MELLA

15 urte, ikaslea

Niri telesailak gustatzen zaizkit, “O.C” batez ere. Telebistak umeengan eragina dauka, baina ez gehiegi. Nire ustez kalitatezko telebista programazioa daukagu, ez dago telezaborrik.



### ESKERTZA

2004ko urriaren 25ean, 59 urte zituela hil zen  
**JOSE LUIS FERNÁNDEZ MENDIZABAL**en emazteak,  
seme-alabak, bilobak eta gainerako sendiak,  
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## PISUA GALDU ETA BIZITZAZ GOZATU

**P**isua soberan edukitzeak, gorputzean beharrezkoa baino koipe gehiago dagoela esan nahi du. Pisua galtzeko modu asko daude, baina metodo egokia bakarra da: pausuz pausu gorputzean soberan dagoen koipea kentzea. Mirarizko dietak egitea, edo medikuaren kontrolrik gabe pisua bizkor kentzea oso arriskutsua da norberaren osasunerako, izan ere, likido eta muskuluak galtzen dira, eta gero, pisu gehiago hartzen da.

Pisua galdu eta bizitzaz gozatzea posible da. Dieta orekatu bat eginez, elikagai egokiak uztartuz eta ariketa fisiko apur bat eginez, pisua erraz galtzen da.

### Aldaketa txikiak, lorpen handiak

Jateko ohitura onak edukitzeak emango digu arrakasta. Ondoren aipatuko ditugun 10 puntuetatik, hiru ondo eginez, pisua modu osasuntsuan galtzen da.

1. Gosaldu, bazkaldu eta afaldu egunero. Ahal bada, merienda ere bai. Jatordu bat ez egiteak, hurrengoan gehiago jatera bultzatzen du.
2. Fruta eta barazkiak jan egunero: 2-3 fruta ale, barazkiak edo entsaladak.
3. Baporean, labean, mikrouhinean edo plantxan eginiko jakiak jan. Frijitutako edo albardatutako jakiak ebitatu, koipe eta kaloria asko baitituzte.
4. Jatordu artean zerbait jan nahi bada, kaloria gutxiko jakiak aukeratu: tomate zukua, azenarioak, jogurt gaingabetuak, infusioak...
5. Gozoa, gazta, pateak eta txerrikiak ebitatu.
6. Razioak txikitu: egunero jaten duzuna baino koilarakada bat gutxiago atera, edo atal txikiagoak jan.
7. 4-6 edalontzi ur edan egunero. Freskagarriak eta alkohola gutxitu.
8. Oliba olio erabili; egunean bi koilarakada.
9. Etxetik irten aurretik, ondo pentsatu benetan autoa beharrezkoa den, edo oinez joaterik ba al duzun.
10. Eskailera erabiltzera ohitu.



Osasunari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu,  
deitu **BARRE**Neko 943 74 41 12ra

# osasuna

## Osasun txokuak

### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

#### Kemen Belardenda

(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, yoga)

San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

#### Surya Belardenda

(Zure osasunerako erremedio naturalak)

San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

#### Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9 • Tel: **635 71 55 03**

Egunero: 10-11:30/15-16:30/18-19:30/20-21:30

#### Mendaro

Astelehen eta asteazken: 10-11:30/15-16:30

Astelehen eta ostegun: 20:00-21:30

### OPTIKAK

#### Ikus Optiko-optometrista

San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

#### Uzuri

(optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### ORTOPEDIKAK

#### Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 • Tel: **943 74 35 62**

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### PODOLOGOAK

#### Iñaki Rivero

San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**

Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

#### Oinberri

Errosario kalea, 25 • Tel: **943 74 17 95**

Astearte-ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

Larunbatetan: 10:00-13:00

Gida honetan agertu nahi baduzu,  
deitu **943 74 37 04ra**



## Ostegunetako azoka



*Azken asteotan ez da beste gairik izan gure herrian. Udalak ostegunetako azoka Sigmara aldatzeko hartutako erabakiak inoiz ez bezala aztoratu eta mobilizatu ditu elgoibartarrak. Joan zen urriaren 21ean prentsaurrekoa eskaini zuten Udal Gobernuako ordezkariak erabaki honen inguruan. Ondorengo lerroetan bertan esandakoak bildu ditugu. Egun berean manifestaldi jendetsuak zeharkatu zituen herriko kaleak trasladoaren aurka protesta eginez. “Alkatearen inposaketa eta dekretuari ez” irakur zitekeen pankartaren atzean. Joan zen urriaren 25ean, Gipuzkoako Saltzaile Ibiltarien idazkaria eta bi bokal Udaleko arduradunekin bildu ziren ostegunetako azokaren trasladoaren gainean berba egiteko, baina ez ziren inongo akordiora iritsi. Eguaztenean, berri, Elgoibarko saltzaile ibiltariekin elkartu zen Alkatea. Erredakzioa itxi aurretik ezin izan dugu bilera honen berri jakin.*

### NOLA HARTU ZEN ERABAKIA

Marivi Agirregomezkortak ostegunetako azoka Sigmako orubera aldatzeko erabakia nola gauzatu zen azaldu zuen hilaren 21eko prentsaurrean: “Hirigunea oinezkoentzako izan dadin nahi dugu. Ezin dezakegu asmo hau izan eta asteen egun batez (ostegun goiza) azoka bat plazan eta autoak gora eta behera eduki. Gainera, ostegunetako arazo asko sortzen zirela ohartu ginen: auto ilarak, zikinkeria, galarazitako lekuetan aparkamenduak, etab. Hortaz, nora aldatu genezakeen azoka aztertzen hasi ginen. Zenbat postu zeuden eta zenbat metrotako guneak genituen alderatu ostean, Sigmako orubeak beharrezko ezaugarriak zituela eta Plaza Handiak dituen gabeziak gainditzen zituela ondorioztatu genuen. Hau izan zen gure planteamendua eta dekretua atera genuen. Ondoren, bertan antolatu genituen San Bartolometako zezentxoak, eta inguru hau beste hainbat gauzetarako erabili genezakeela ikusi genuen. Azken finean prozesu bat da eta ideiak gaineratuz joan gara orain gauden punturaino iritsi arte, estalkia jartzearena, alegia”.

### “MEA CULPA”

Erabaki polemiko honetan izan zitezkeen erruak onartu zituen alkateak, “Emaitza ikusirik, erabaki hau beste modu batera enfokatu ahal genuela iruditzen zait. Horretan onartzen dut nire errua, baina

egiatan diot, horrenbesteko onbeharrez prestatu genuen proiektua, ez geniola inongo trabarik ikusi, ezta inor kaltetzen genuenik pentsatu ere. Hauxe izan zen azalpen gehiago ez ematearen arrazoia.

**“Sigmak beharrezko ezaugarriak ditu eta Plaza Handiak dituen gabeziak gainditzen ditu”**

Marivi Agirregomezkorta

Trasladoa guztiontzat onena izango zela sinistuta geunden eta gaude. Ingurune berriak bertute asko ditu, baina agian ez dugu jakin, edo ez dugu komunikabideen aldetik behar besteko laguntzarik eduki leku honek dituela uste dugun bertute guzti hauek helarazten”. Sigmako gunearen abantailak izendatu zituen alkateak: “Plazatik 300 metro eskasera dago. Ez dago erdigunearen bihotzean, baina ezta urrunegi ere, batzuek saldu nahi duten moduan. Gainera, herriaren erdigunea aldatzen ari da azken urteetan eta bi urtetan 99 etxe berri eraikiko dira 30 metro eskasera. Salmenta guneak 500 m<sup>2</sup> gehiago izango ditu, egungoa baino %50 handiagoa izango delarik espazioa. Saltzaileek zama lanak egin eta hobeto antolatzeko aukera eta erosotasun gehiago izango dituzte.

Furgonetak ondoan dagoen aparkalekuan laga ahal izango dituzte. Azkenik, gune komertzial batean kokatuta eta bi autobus geltokiren ondoan dago”.

Gobernu taldeari dagokiola erabakiak hartzea berretsi zuen alkateak: “Agintzea erabakiak hartzea da eta denen arteko akordioak bilatzeak ez gobernatzeko suposatzen du askotan. Edozein erabaki hartu aurretik kontsultak egin behar al ditugu? gainera, herritarrei eginiko kontsultak zailak dira neurtzen”.

### GARDENTASUNA

Gai honen inguruan oposizio politikoak izan duen jarrera salatu zuen Agirregomezkorta alkateak: “Gardentasunez jokatu ez izana leporatu digu oposizio politikoak. Hori ez da egia. Komisioetan galdera eta iradokizunen atalean aztertu genuen gai hau eta hori da aktan jasota ez egotearen arrazoia. Hortaz, inork ezin dezake esan gai hau aztertu ez dugunik, aktetan agertu ez arren. Gardentasuna erabatekoa izan da. Bestalde, oposizio politikoak inkoherentziaz ere salatu gaitu, baina gobernu batzordeak hartutako erabakiaren planteamendu alternatiborik ere ez dago. Oposizioa herritarren zerbitzura lan egiteaz baino arduratuagoa dago ur mugitutan arrantza egiteaz. Oposizioko alderdi politikoak demagogia handia erakusten ari dira gai honen inguruan”.

# KiliBARREN

## Eduardo Gomez mendarorarak Mister Euskadi lehiaketan hartu du parte

Patricia Navok, bestalde, udazken eta neguko jantzien desfilean hartu zuen parte Eibarren

**E**duardo Gomez mendarorarak Bilboko Rock Star diskotekan ospatu zen Mister Euskadi lehiaketan hartu zuen parte, urriaren 15ean. Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako 15 lagun izan ziren lehiaketan: “Banekien ez neukala irabazteko aukerarik, baina sekulako esperientzia izan da”. Eduardo Gomezek 27 urte ditu, eta modaren munduan iaz debutatu zuen arren, dagoeneko, lan dezente egin du: “Eibarko Merkatarikari Elkarteak antolatutako desfile batean debutatu nuen iaz. Bestalde, Eibarko jantzi denda batzuen desfileetan ere hartu dut parte”. Honetaz gain, Goenkale Telesailean eta Etxebeste pelikulan extra moduan aritu da. Eduardok berak esan digunez, koinatak animatuta sartu zen modaren munduan: “Niri abestea gustatzen zait. Operacion Triunfo programako kasting-era aurkeztu nintzen, baina ez ninduten hartu. Koinatak animatu ninduen modelo lanetara, eta horrelaxe hasi nintzen”. Bihar, Donostiako La Bretxa Merkatal Zentroan desfileatuko du.



Argazkiak: Egaha

### Patricia Navo

Patricia Navo gazteak, Eibarko Merkatarikari Elkarteak antolatutako udazken eta neguko jantzien desfilean hartu zuen parte Astelena Frontoian. Patricia informatika ikasketak egiten ari da, eta moda hobby moduan hartzen du: “lagun berriak egin, eta ondo pasatzeko desfileatzen dut”. 20 urte besterik ez dituen arren, ez da bere lehenengo desfilea izan: “laugarren aldiz hartu dut parte desfile honetan, eta beste hainbat denden desfileetan ere parte hartu izan dut”.

## David Hammerstein, Berdeen Taldeko Eurodiputatuak Mendaron izango da bihar, hilak 30

Mutrikuko Natur Taldeak antolatuta, David Hammerstein, Berdeen Taldeko Eurodiputatuak prentsurrekoa eskainiko du bihar, hilak 30, Mendaroko udaletxean. Bertan, Mendaroko deklarazioa irakurri eta sinatuko du.

David Hammerstein Los Angelesen jaio zen 1955ean, eta 1978an iritsi zen Espainiara. 1986. ur-



tean lortu zuen espainiar nazionalitatea, eta 2000. urtetik Berdeen Taldeko Eurodiputatu da. Ingelesa, gaztelania, katalana, italiar eta hizkuntza hebreoa hitz egiten ditu. Soziologian Lizentziatua izanik, 15 urtez irakasle lanetan aritu da, eta gaur egun, doktoregoa egiten dihardu Valentziako Unibertsitatean.

## Diapositiba emanaldia azaroaren 19an

Azaroaren 19an, “Transeuroa-Ipar lurmuturra-Tarifa” izeneko diapositiba emanaldia izango da udaletxeko Otaerre aretoan, gaueko 21:30ean. Bidaiari ausart batzuek egindako zeharkaldia ikusi ahal izango da. Ipar Lurmuturretik (Norvegiatik) abiatu ziren, negu gorrian, izotz eta elur artean eskiatuz. Bi hilabete geroago, 800 kilometro egin ostean, Kemira iritsi ziren, Itsas Baltikora. Urak zeharkatuz, Suediako kostaldean berrera, hilabete eta erdiko itsasaldia egin zuten hegoalderantz Lubeckera (Alemania) iritsi arte. Handik aurrera, 2.500 kilometro egin zituzten bizikleta gainean, Tarifaraino. 3 garrabide erabili zituzten. Eskiek, piraguek eta bizikletek naturarekin eta jendearekin harreman zuzen eta etengabea izaten lagundu zieten. 350 diapositiba ikusiko dira ordubete inguruan. Euskaraz izango da.

## Tantortako ponpalekuaren obren lehiaketa deialdia

Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Eramangarrirako Departamentuak Mendaroko Tantortako Ponpalekua Proiektuko obrak kontratatzeke lehiaketa deialdia egin du. Proiektuak 445.457,56 euroko aurrekontua izango du.

Proiektuak aurkezteko epea azaroaren 8an bukatuko da. Obrak hasien direnetik, bost hilabeteko epean bukatzea aurreikusten da. Deialdiari buruzko informazio gehiago [www.gipuzkoa.net/concursos](http://www.gipuzkoa.net/concursos) helbidean.



**Kilibarren**

Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

*Momentuz asteburuak libre dituela-eta kexatu zaigu Iban Zubiaurre mendararra. Beste edonork desiratuko lukeena seinale txarra da bere lanbidean, futbolaria baita, Realeko jokalaria hain zuzen ere. 21 urteko gazteak iaz egin zuen debuta Realarekin Kopa Txapelketan, baina Ligan jokatzea amesten du. Aurten deialdi bakarrean sartu du Amorrortu entrenatzaileak eta asteazkenean Kopako partidari aritu zen. Bere adineko jokalariek gehienek bezala aukeraren zain egon beharko du Ibanek, berak badaki, eta indar osoz saiatuko da bere ametsa egi bihurtzen.*



## IBAN ZUBIAURRE, Reale

# "Lehen mailan gehia

### Realean jokatuko duen lehen mendararra izateko prest?

Horixe da nire ilusioa. Txikitako amets bat egi bihurtzea izango litzateke. Dena dela, mendaror batek, Goikoetxeak, jokatu izan du Sansen eta aurre denboraldi bat ere egin zuen Toshacken aginduetara, baina debutatzera ez zela iritsi uste dut.

### Denboraldian zehar aukerarik izateko itxaropenik bai?

Kopa Txapelketan iaz egin nuen debuta Oviedoren aurkako partidari eta Kopako bi partiduri jokatu nituen hasieratik. Ia aurten Ligan jokatzeke zorterik dudari, nahiz eta aukera asko ez ditudala izango badakidan. Aukera apurrak aprobetxatzen asmatu beharko dut. Lehen aukera joan zen asteazkenean Kopako partidari izan nuen eta entrenatzaileari taldean leku bat dudala erakusteko gogoarekin ateratu nintzen.

### Zenbatetan sartu zara jadanik lehen taldearen deialdian?

Iazko denboraldian 4 aldiz sartu nintzen deialdian Liga Txapelketan, baina ez nuen jokatu. Kopan, berriz, bi partiduri jokatu nituen hasieratik. Oviedoren aurka 4 eta 0 irabazi genuen eta Alaves-en aurka 2 eta 1 galdu genuen Mendizorrotzan.

### Nolako esperientzia izan zen Kopako partidak jokatzea?

Oso polita. Lehen kanporaketak hil ala bizikoak dira: lehen mailako taldeek galtzeko asko eta irabazteko gutxi izaten dute eta presioa nabari da, irabaztera derrigortua egoteak indarrak ahitzen baititu. Gainera, ez nengoen horrenbeste jenderen aurrean jokatzerari ohituta eta Mendizorrotzan izugarritzko giroa zegoen. Dena dela, beroketak egitera ateratzean bakarrik igartzen da jendearen presioa, gero partiduan murgildu eta ez zera konturatu ere egiten.

### Zer alde dago Sansen edo Realean jokatu?

Tentsioa eta erritmoa biziagoak dira. Sansen huts bat eginez gero ez da horrenbeste nabarmentzen, aurkariek ere kalitate gutxiago baitute eta ez dituzte huts egitean ondorioz sortutako aukera guztiak aprobetxatzen.

## "Egunero entrenatzen dut Rekarterekin eta ispilu oso ona dela iruditzen zait"

### Zer dohain behar dira Eskuineko hegalean jokatzeke?

Printzipioz atzelariak garenez, ongi defendatzea eta lekua hartzen jakitea ezinbestekoa da, baina erasoan ere lagundu behar izaten dugunez, ibilbide luzeko jokalaria izatea komeni da. Hortaz, fisikoki ondo egon behar da zelaiaren punta batetik bestera korrika egiteke. Hegaletatik azken paseak ematen ere jakin behar da.



# go nabarmentzen dira hutsegiteak"

## Defini ezazu zure burua futbolari gisa?

Taktikoki nahiko ondo jartzen naiz atzealdean eta ahal dudanean gora egiten dut. Lehen mailan, ordea, neurtuak izan behar dira gorantzako saiakerak, atzean min handia egin diezazuke-eta.

## Realean Lopez Rekartek jokatzen du zure postuan, ezta?

Bai, eta horrek ez dit bidea errazten. Jokalari internazionala izateaz gain, taldeko kapitaina da. Dena dela, pazientzia eduki behar dut eta aukerak aprobetxatu.

**"Amorrorruk gurekin konfiantza zuela eta aukerak izango genituela esa zigun hasieratik"**

## Zure postuan miresten duzun jokalaririk?

Momentuz etxean daukadanetik ikasi behar dut. Egunero entrenatzen dut Rekarterekin eta non begiratzeko ispilu oso ona dela iruditzen zait.

## Nola ikusten duzue etorkizuna harrobiko jokalaririk?

Aukerak badaudela ikusten dugu. Riesgo eta Garrido moduko bi jokalaria gazte esaterako, hasierako hamaikakoan sartzen ari dira. Amorrorruk gurekin konfiantza zuela eta aukerak izango genituela esan zigun hasieratik eta horrek kemena ematen digu. Amorrorru Athleticen harrobiarekin lan egitetik dator eta harrobiko jokalariei aukerak ematearen aldekoa dela uste dut.

## Zer aurpegi erakutsiko digu Realak aurten?

Badakit jendea ez dagoela gustura, baina entrenamenduetan ikusitakoarekin, hau aurrera aterako dugun esperantza daukat.

## Liga irabazteko faborito bat?

Momentuz Bartzelona gainontzeko taldeak baino maila bat gorago dago. Egin dituen fitxaketa berriak onak izan dira eta emaitzez gain, gustua ematen du zer alai jokatzen duten ikusteak.

## Miresten duzun jokalaria bat?

Hristo Stoickov.

## Ez al dizu penarik ematen Mendaron futbol zelai ganorazkorik ez egoteak?

Bai, eta Kilimoia desagertu izanaren arrazoi nagusi bat behar bezalako futbol zelai bat ez edukitzea izan zela uste dut. Mendaro herri txikia da eta jokalaria gutxi ateratzen direnez, kanpotik etorriko direnen beharra du, baina zelaiaren egoerak ez zuen bate-re laguntzen. Ez zen batere erakargarria hona jokatzerara etortzea.

## IBILBIDEA FUTBOLEAN



Iban Zubiaurre Realeko harrobiko jokalaria da, inongo dudarik gabe, hamar urte zituenetik jokatzen baitu talde txuri-urdinean. Alebina zela-rik Elgoibarren hasi zen jokatzen infantil maila-koekin, eta segituan jaso zuen talde donostiar-rraren deia. Geroztik, Realaren behe mailako talde guztietatik pasa

da: alebinak, infantilak, kadeteak eta jubenilak. Bi urte egin zituen Sansen (Bigarren B maila) eta aurten lehen taldearekin hasi du denboraldia, entrenatzaileak Lehen Mailako fitxa egin zezala erabaki baitzuen. Iaz ligako lau partidatara deialdian sartu zen Zubiaurre, baina Kopa Txapelketan egin zuen debuta lehen taldearekin. Aurten Ligako zazpi jardunalditatik bakarrean sartu du deialdian Amorrorru entrenatzaileak, baina ez du ligan debuta egiteko ilusiorik galdu.

### Espainiako selekzioa

Azkar jaso zuen Espainiako selekzioaren deia, 15 urtez azpiko Espainiako selekzioarekin jokatu baitzuen. Lehen arrakasta ere bizkor iritsi zitzaion, 18 urtez azpiko Norbegiako Europako Txapelketan hirugarren postua lortu baitzuen eta urtebete beranduago Europako txapeldun geratu zen Finlandian 19 urtez azpiko selekzioarekin. Ondoren, belauneko lesio batek Arabiar Emiratoetan jokatu zen Munduko Txapelketatik kanpo laga zuen. Espainiako selekzioa finaleraino iritsi zen eta Brasilen aurka galdu zuen finala. Asier Riesgo, Debako atezaina, izan du lagun selekzioarekin joan izan den gehienetan eta Mikel Artetarekin ere bat baino gehiagotan jokatu du selekzioaren beheragoko mailetan.

### Zer esanahi dute zuretzat ondorengo hitz hauek

- **Mendaro:** Lasaitasuna.
- **Bikotea:** Konfiantza.
- **Familia:** Epeltasuna.
- **Lagunak:** Babesa.
- **Baloia:** Laguna.
- **Erlijioa:** Sinesgaitza.
- **Politika:** Desmadrea.

# Erretratu zaharra



**F**ilabete honetako erretratu zaharra **Santiago Ansuategik** laga digu. 1957. urtean egin zuten kintoen despedidako argazkia da eta Agustina Mojen komentuko eskaileretan aterata dago. Garai hartan, soldaduskara joan aurretik kintoen despedida egiten zen. 21 urte betetzerakoan despedida egin, eta 22rekin soldaduskara. Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri direnak:

Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: **Mikel Iriondo, Juan Jose Urain** eta **Santiago Ansuategi**.

Erdiko ilaran, ezkerretik eskumara: **Asensio Urbieta** eta **Jose Maria Zulaika** (†).

Behean: **Manuel Arakistain**.



## ESKERTZA

2004ko urriaren 21ean, 76 urte zituela hil zen,  
**JOSE ETXANIZ ZENDOIA**ren sendiak,  
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## I. URTEURRENA

2003ko urriaren 27an, 54 urte zituela hil zen  
**JOSE MARTIN GORROTXATEGI**ren oroimenez  
**URTEURRENEKO MEZA** izango da  
larunbata, hilak 30, arratsaldeko 20:00etan Maalako elizan.  
Joango zaretanoi eskerrak alde z aurretik.



# Softlan-en azkena ezagutzen al duzu?

[www.esoftlan.com](http://www.esoftlan.com)



- ➔ 13.000 produktuen datuak on-line kontsultatu
- ➔ Zuzenean erosi prezio merkeagoak lortuz
- ➔ Zure fakturak eta bidalketak berrikusi
- ➔ Zure kontuko informazio guztia kontsultatu

## Honetaz aparte...

Antonio Arrillaga, 1  
Tel. 943 74 81 05 • Faxe: 943 74 82 28  
E-posta: [info@softlan.biz](mailto:info@softlan.biz)  
Web orria: <http://www.softlan.biz>



**Softlan**  
analisa & programazioa





*Datorren astelehenean, azaroaren 1ean, Santu Guztien Eguna ospatuko da. Hilerria lorez jantziko da egun honetan, eta hildakoak gogoratuko ditugu. Egun hau aitzakitza hartuta, Etxeberria Funerariako Jesus Marirekin hitz egin dugu. Gazte gaztetatik hildakoen mundu ilun honetan aritu da lanean, eta dagoeneko jubilatuta dago. Jesus Marik ere, ezin izan digu hil eta gero zer dagoen argitu, baina gauza interesgarri ugari kontatu dizkigu.*

**“Hil eta gero zer ote dagoen galdetzen diot oraindik ere neure buruari”**

# JESUS MARI ETXEBERRIA

## ■ Nola hasi zinen lan honetan?

Eskola utzi, eta tailerrean hasi nintzen lanean. Aitak arotzgia zeukan hemen, eta berarekin hasi nintzen arotz lanetan. Garai hartan, beste lan batzuen artean, arotzek hilkutxak egiten zituzten. Hortik abiatuta ireki genuen funeraria.

## ■ Zein da funerariako lana?

Norbait hiltzean, familiakoek ez dute jakiten zer egin behar den, urduri jartzen dira. Beraien lana hemendik bideratzen dugu. Egoera gogor hori erraztea da gure lana.

## ■ Lan gogorra al da?

Ez, ordutegia da gogorra. Edozein plan egiten duzunean ere, telefonoa gainean eduki behar duzu, ezin zara oso urrutira joan. Erraz lokalizatzeko moduan egon behar da.

## ■ Nola aldatu da funerariako lana hainbeste urtetan?

Lehen hilkutxak hemen egiten ziren, eta gaur egun, egin da erosten dira. Lehen gainera, ez zegoen errepiderik, eta baserrietan norbait hiltzen zenean, hilkutxa askotan bizkar gainean eramaten zuten etxera. Gaur egun gauzak askoz errazagoak dira.

## ■ Gogorra al da hildakoaren familiakoek sufrimendua ikustea?

Momentu txar batzuk pasatzen ditugu, baina azkenean ohitu egiten zara. Hildakoa ezaguna edo gaztea bada, gehiago eragiten du, edo istripuz hil bada eta gorpua egoera txarrean badago, familiarentzat gogorra izaten da.

## ■ Hildakoekin lan egiteak ez al dizu sekula beldurrik eman?

Ez, familian beti ezagutu dugu hau. Azkenean ohitu egiten zara.

**“Hildako asko pasatu dira hemendik, baina inork ez dit tarjetarik bidali”**

## ■ Heriotza beste modu batean ikusten al duzu orain?

Ez, heriotzak oraindik ere beldurra ematen dit. Hemendik hildako asko pasatu dira, eta inork ez du beste mundutik tarjetarik bidali. Askotan galdetzen diot neure buruari hil gero zer ote dagoen, eta ez daukat erantzunik. Gainera apaizek ere ez digute ezer akklaritzen.

## ■ Nolako harrera izan du tanatorioak?

Oso ona. Duela hiru urte ireki genuen, eta jendeak oso ondo hartu du. Ohiturak aldatzen doaz. Lehen hildakoa 24 ordu pasatu arte ezin zen etxetik atera eta hilkutxa entierroa baino ordu erdi lehenago eramaten genuen etxeetara. Gainera, senideak etortzen ziren etxera hildakoa ikustera, eta jaten eman behar zitzairen, gau guztia erreztatzen pasatzen zuten, eta familiakoentzat gogorra zen.

## ■ Nola prestatzen dituzue hildakoak tanatorioan?

Jantzi eta apur bat margotu, eta batzutan konpondu ere egiten ditugu. Ez da bizirik egongo balitz bezala gelditzen, baina beste itxura bat hartzen du. Askotan ezin izaten da ezer egin. Istripuz hil bada, adibidez, gorpua ezin izaten da konpondu, eta hobe izaten da inork ez ikustea. Hala ere, familiakoek batzutan ikustea nahi izaten dute, batez ere, hildakoa bera dela ziurtatzeko. Horrelakoetan oso gertuko senideei uzten zaie gorpua ikusten, baina gainontzeko jendearek ez.

## ■ Ez al duzu uste, hiltzea oso garestia dela?

Ez, bakoitzak nahi duena gastatzen du. 1.500 euroekin dena egin daiteke.

## ■ Berriz lanean hasi beharko bazenu, lan berbera aukeratzeko zenuke?

Bai, dudarik gabe. Hemen ez dago arazorik, ezta arriskurik ere. Oso gustura aritu naiz.

## S.O.S.: Itxaropena abesbatza desagertzeko zorian

Sei kide berri behar dituzte aurrera jarraitzeko

**D**atorren asterako sei kide berri lortu ezean, Itxaropena Abesbatzak agur esango dio 12 urteko ibilbideari eta desagertu egingo da. Egiten duten azken saiakera da honakoa eta azken deialdi honek erantzunik jasotzen ez badu datorren astean zehar bildu, eta gogoz kontra bada ere, Itxaropena desagiteko erabakia hartu beharko dute egungo kideek. 10 lagun besterik ez zeuden taldean eta azken asteetan egin duten kanpainari esker lau kide berri lortu dituzte. Dena dela, behar bezala aritzeko gutxienez 20 lagun behar dituztela ziurtatu digute.

Itxaropena abesbatzako partaide izateko solfeo edo armonia ikasketarik izatea ez dela beharrezkoa azaldu digute Itxaropenako ordezkariak, "kantatzea gustatu, belarri pixka bat eduki eta entseguetara (astean bi) joateko konpromisoa hartzeko prest egotearekin nahikoa da.



*1992ko abenduaren 31n hasi zuen bere ibilbidea Itxaropena abesbatzak.*

Soraluzeko eta Debako koruek 50 eta 30 lagun dituzte, eta penagarria litzateke Elgoibar moduko herri batean, biztanle gehiagokoa eta betidanik musikarako zaletasuna erakutsi duena izanik, abesbatza osatzeko adina jende ez lortzea.

Santa Zezilia, Musikarien Zaindariaren Eguna (azaroak 22) gainean dugun honetan penagarria litzateke Itxaropena desagertzea". Interesatuak honako telefonoetara dei egin dezakete: 943 74 13 39 (Ane) edo 635 756 757 (Aitor).

## Udal Liburutegia Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalean sartu da

Euskadiko 200 liburutegiren zerbitzuak erabili ahal izango dira internet bidez

**E**lgoibarko Udal Liburutegiak Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalean sartuta dauden liburutegiek osatzen duten sare informatizatuaren proiektuan parte hartuko du. Proiektu hau Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak sustatutakoa da, eta duela hilabete batzuk jarri zen abian, horretarako propio aukeratutako herri batzuetan. Elgoibarko Liburutegia proiektu honen bigarren faserako aukeratu dute. Sareko katalogazio elebiduna, irakurleentzako txartel bakarra, guztiontzako politikak (mailegua, funtzionamendu arauak, e.a) eta liburutegien arteko mailegua izango dira proiektuak lortu nahi dituen helburuak.

Gauzak horrela, bazkideek liburutegian bertan edo internet bidez, liburutegiko eta sareko beste liburutegi



batzuetako materialak kontsultatu ahal izango dituzte sarean dagoen katalogo kolektibo bati ([www.euskadi.net/katalogobateratua](http://www.euskadi.net/katalogobateratua)) esker. Etengabe eguneratzen den katalogoaz izateaz gain, erabiltzaileak maileguak edo erreserbak eskatu, maileguak kontsultatu

eta iradokizunak eta erosketa eskabideak egin ahal izango ditu.

### Bazkide txartel berriak

Bestalde, Elgoibarko erabiltzaileek, euren txartelari esker, Euskadin dauden 200dik gorako liburutegien zerbitzuak erabili ahal izango dituzte. Proiektu hau abian jartzeak lan eskerga sortuko du, berriz ere etiketatu beharko baitira liburutegiko ale guztiak (21.000 liburuki), eta bazkide-txartel berriak egin. Hori dela eta, Udal Liburutegiko arduradunek dei egiten diete txartela berritu nahi duten erabiltzaileei, txartel zaharra eta argazki bat edo argazkiaren koloretako fotokopia bat liburutegira eraman dezaten. Oraindik bazkide ez direnek, berriz, bi argazki edo argazkiaren koloretako fotokopia bi eta Nortasun Agiria eraman beharko dituzte.

## David Condek eta Txomin Rogelek Gipuzkoako Ehiza Xeheko Txapelketan parte hartuko dute

La Union Elkarteko bost ordezkari arituko dira azaroaren 14ko txapelketan

**D**avid Conde eta Txomin Rogel ehiztari elgoibartarrek Gipuzkoako Ehiza Xeheko Txapelketan parte hartzeko txartela eskuratu zuten Urnabitza mendian jokatu zen Eskualdeko Txapelketan. Iñigo Guisasola eibartarrak irabazi zuen txapelketa 4 faisai bota ostean. Condek eta Rogelek ere launa faisai ehizatu zituzten, baina bigarren eta hirugarren postuekin konformatu behar izan zuten, hurrenez hurren. Elgoibar, Eibar eta Mendaroko 16 ehiztariak parte hartu zuten txapelketan lainoa izan zen protagonista nagusia, ordu eta erdiko atzerapenarekin hasi zirelarik ehiztariak lanean ikusmen faltaren erruz. Lainoa jaso zuenean askatutako 36 faisaietatik 25 ehizatu zituzten ehiztari eta txakurrek. Jubenil mailan Ander Santiago izan zen ehiztariarik onena 2 faisairekin eta Santi Arrieta eibartarra beteranorik onena.



La Union Elkartek bost ordezkari izango ditu azaroaren 14an jokatu den Gipuzkoako Ehiza Xeheko Txapelketan. Rogel eta Condez gain, Ander Santiago



eta Adur Juaristi izango dira jubencil mailako ordezkariak eta Juan Murua, berriz, beterano mailako ordezkaria izango da.

## Lehen Hezkuntzako 319 ikaslek parte hartuko dute igeriketa sustapen-kanpainan



Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak igeriketa sustapen-kanpaina jarri du martxan. Bertan, Lehen Hezkuntzako 1-4 maila bitarteko 319 ikaslek parte hartuko dute. Helburua, 9 urte betetzerako guztiek igerian egiten jakitea da. Gauzak horrela, urritik maiatzera bitartean haur guztiak igerilekutik pasako dira. Ikasle bakoitzak 20 orduko klaseak jasoko ditu lau astetan zehar banatuta. Elgoibar Ikastolako 152

ikaslek, Herri Eskolako 114 ikaslek eta Pilar ikastetxeko 53 ikaslek parte hartuko dute kanpaina. Irakasleek ere lan itzela izango dute hilabeteotan, 308 ordu osatzen baititu klase ordu guztien baturak. Ikastaroa doanekoa izango da ikasle eta ikastetxeentzat. 5.400 euroko aurrekontutik 3.786 Udal Kirol Patronatuak jarriko ditu eta gainontzekoa, 1.614 euro, Gipuzkoako Foru aldundiak.

### ESKERTZA

2004ko urriaren 24an, 88 urte zituela hil zen **CARMEN IGLESIAS SEARA**ren seme-alabak, bilobak, birbilobak eta gainerako sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





## 6.000 euro jokoan Egi eta Izeta III. harrijasotzaileen arteko apustuan

Azpeitiko zezen plazan jokatu da domekan, hilaren 31n

Jabier Arriola "Egi" harrijasotzaile elgoibartarrak 6.000 euro jokatu ditu Jesus Mari Iruetagoiena "Izeta III"aren aurka, domeka honetan, Azpeitiko Zezen plazan (12:00) jokatu duten apustu gogorrean. Egin beharreko lana: 100 kiloko zilindro itxurako harri zahar bat bizkarrera ahalik gehien jasotzea 3 minutuko 3 tandetan. Saio bakoitzetik bestera bost minutuko atsedena hartu ahal izango dute. Zozketa bidez erabakiko dute nor hasiko den lehenbizi lanean. 31 urteko harrijasotzaile elgoibartarra plaza eta txapelketetatik erretiratuta egon da azken aldian, baina gazteago zela etorkizun eta dohain handiko harrijasotzailea izan zen. Izeta III., berriz, egungo harri txikietako Euskadiko txapelaren, Izeta II. aiarraren anaia da. Ez da anaiaren mailara iristen, baina plazetan ibiltzera ohituago dago, anaiarekin



batera aritzen baita erakustaldietan. Bi apustulariek antzerako gorpuzkera dute eta dema orekatua espero da.

### Udal Kirol Patronatuak Lehen Laguntzak eta Uretako Sorospena izeneko ikastaroa antolatu du

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak eta Euskadiko Salbamendu eta Sorospen Federazioak ikastaro berri bat antolatu dute, Kirola Euskaraz izeneko programaren baitan. Olaizaga kiroldegian burutuko da ikastaroa 2005eko urtariletik aurrera, eta 85 ikastorduko iraupena izango du. Ikastaroa egin ondoren, parte hartzaileek bi titulu ezberdin eskuratuko dituzte, bata Lehen Laguntzei, eta bestea, Uretako Sorospenari dagokiona. Debarrenakoek 270 euro ordaindu beharko dituzte ikastaroan parte hartzeko. Eskualdekoak ez direnek, aldiz, 300 euroko matrikula ordaindu beharko dute. Ikastaroa euskaraz izango da ia bere osotasunean. Aurre matrikula Olaizaga kiroldegian egin daiteke. Informazio gehiago honako telefonora deituta: 943 74 44 15.

### ESKOLA KIROLA

#### AGENDA

Urriak 30, 3. Jardunaldia

##### ESKUBALOIA, Kiroldegian

- **Infantil mutilak** ■
- 09:10 BHI A - Ikastola A
- 10:00 BHI B - Pilar A
- **Infantil neskak** ■
- 10:50 BHI B - Ikastola A
- 11:40 Pilar B - BHI A
- 12:30 Ikastola B - Pilar A

##### MINISASKIBALOIA, Herri Eskolan

- **Alebin mutilak** ■
- 09:00 Ikastola A - Herri Eskola A
- 09:45 Pilar A - Herri Eskola B
- 10:30 Mendaro 5-6 - Ikastola B
- **Alebin neskak** ■
- 11:15 Pilar A - Ikastola B
- 12:00 Herri Eskola - Ikastola A

##### SASKIBALOIA, Mintxetan

- **Benjaminak** ■
- 09:10 Ikastola E - Pilar A
- 09:45 Ikastola A - Ikastola C
- 10:20 Herri Eskola A - Pilar 3
- 10:55 Mendaro 3 - Ikastola B
- 11:30 Mendaro 4 - Herri Eskola B
- 12:05 Herri Eskola C - Ikastola D

### EMAITZAK

#### Futbola

Pedrusko 2 – Zarautz 0 (1. erreg.)  
 Haundi 1 – Lagun Onak 1 (3. maila)  
 Ikasberri 2 – Elgoibar 0 (1. erreg.)  
 Lagun Onak 4 – Elgoibar 1 (Jub.)  
 Elgoibar 2 – Urola 1 (Kad.)  
 Real Union 3 – Elgoibar 1 (Inf. A)  
 Lagun Onak 6 – Elgoibar 1 (Inf. B)  
 Eibartarrak 5 – Elgoibar 0 (Neskak)  
 Antzuola 0 – Elgoibar 4 (Neskak F-8)

#### Esku pilota

##### Gipuzkoako Txapelketa

Lagunak 22 – Oiarpe 4 (Nag.)  
 Intxaurren 22 – Lagunak 6 (Nag.)  
 Lagunak 22 – Zazpi Iturri 2 (Jub)  
 Lagunak 13 – Aurrera Sayaz 22 (Jub. Banaka)  
 Lagunak 17 – Bergara 22 (Kad.)  
 Lagunak 30 – Hernani 25 (Jub. nesk. Palaz)

#### Areto Futbola

Kenci Elg. 10 – Astrikotz 5 (Nazional B)  
 Azurki 3 – Lanbroa 2 (1. maila)  
 Aloña Mendi 9 – Toletxe Kafetegia 1 (Jub.)

#### Eskubalola

Pneumax Sanlo 18 – Hondarribia 23 (Jb. mt.)  
 Antt Sanlo 28 – Donibane 23 (Sen. mut.)  
 Tecnifuelle Sanlo 21 – Ereintza 32 (Sen mut.)  
 Urdaibai 25 – Pagoaga Sanlo 11 (Kad. nesk.)  
 Urdaibai 21 – Cometel Sanlo 16 (Jub. nesk.)  
 Bidasoa 27 – Tecnomeca Sanlo 15 (Kad. mut.)  
 Leizaran 16 – Sanlo 25 (Sen nesk.)

#### Idarraga kafeak 8. saria

HAUNDIko jokalarierregularraren 04/05  
 JOKALARIA ..... PUNTUAK

1- J. Igartua .....	10
2- Mikel Calvo .....	9
3- Iribar .....	8
4- A. Arenas .....	7
5- J. Arrasate .....	6
6- Javi Gomez .....	6
7- Ibai Gonzalez .....	5
8- I. Oruesagasti .....	5
9- Loren .....	4
10- Guinea .....	3
11- Navarrete .....	3
12- M. Elkoro .....	3
13- Mandiola .....	2
14- Etxabe .....	2

### AGENDA

#### Eskubalola, Kiroldegian

Zapatua, 30

16:00 Tecnomeca Sanlo–Ite Hondarribi (Kd.mt.)  
 17:30 Pneumax Sanlo–Aldaketa Zarautz (Jb.mt.)

#### Areto futbola, Kiroldegian

Domekia, 31

12:00 Lanbroa – Laskorain (1. maila)

#### Esku pilota, Ikastolan

Barixakua, 29

22:30 Lagunak – Hernani (Jub.)

## Lana

### ESKAERA

- ◆ Emakumea garbiketa lanak egin, haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 699 60 91 90
- ◆ Emakumea etxeko lanak egiteko prest. ☎ 637 93 24 26
- ◆ Emakumea garbiketa lanak egin, nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. 10:30etik 17:30era, asteburuak barne. ☎ 626 91 49 04
- ◆ Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Egunez eta gauzez. Esperientzia. ☎ 677 09 70 15 (M<sup>re</sup> Carmen)
- ◆ Emakumea garbiketa lanak egin, haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. Asteburuak barne. ☎ 660 91 94 23
- ◆ Emakumea garbiketa lanak egin, haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 639 88 20 04
- ◆ Neska administrari lanetarako prest. ☎ 655 70 70 33 (Leire)
- ◆ Kamarero, sukaldari laguntzaile edo igeltsero peoi lanetarako prest. ☎ 678 840 531
- ◆ Emakumea gaixoak zaintzeko prest. Igandeak barne. Esperientzia daukat. ☎ 943 17 28 96 (Mertxe)
- ◆ Emakumea edozein lanetarako prest. Arratsaldez. ☎ 660 91 94 23

### ESKAITZA

- ◆ Tabernako sukaldean asteburuetan lan egiteko emakumea behar da. ☎ 615 72 34 80
- ◆ Goxoki dendarako neska edo emakumea behar da, asteburuetarako. ☎ 675 70 81 33
- ◆ Asteburuetan gozotegian lan egiteko neska edo emakumea behar da. ☎ 943 75 50 20/656 73 28 20
- ◆ Taberna jatetxerako asteburuetarako kamarera behar da. ☎ 635 75 16 42
- ◆ Jatetxerako sukaldaria behar da. ☎ 652 77 82 10
- ◆ Kafetegirako kamareroak behar dira. ☎ 617 69 11 31
- ◆ Jatetxerako kamareroa behar da. ☎ 943 12 12 62
- ◆ Kamarero lanak eta pintxoak egin-go dituen pertsona behar da. Zapatueta (16:00-21:00), igandetan (11:00-14:00). ☎ 696 06 06 18

## Garajeak

- ◆ Garajea salgai Pedro Muguruzan. ☎ 645 72 79 11/943 74 41 85
- ◆ Garaje itxia alokairuan Ikastola ondanoan. ☎ 943 53 16 48
- ◆ Madalako etxeetan garaje itxia alokatzen da. ☎ 655 71 20 21
- ◆ Bi pisutako garajea salgai Urсандin, Anayak ondanoan. 16m<sup>2</sup>. ☎ 943 74 09 80/636 20 51 89
- ◆ Garajea salgai Pista Beltzean. ☎ 943 74 07 57 (Arantza)
- ◆ Garajea hartuko nuke alokairuan Urсандin. ☎ 943 74 08 63 (20:00etatik aurrera)
- ◆ Etxea salgai Errosario kalean. 3 logela, egongela, sukaldea eta despentsa. Altzariakin eta berogailu zentrala. ☎ 943 74 02 68/699 17 98 72
- ◆ Pisu salgai Mendaron. Berria. Garaie eta trasteroarekin. Prezioa adosteko. ☎ 686 045 321/943 74 15 21
- ◆ Etxea salgai Mendaron. Altzariz jantzi berria. Dena kanpora. Prezioa adosteko. Aukera paregabea. ☎ 625 26 09 39/943 75 62 05
- ◆ Etxea salgai Santa Ana kalean. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ 636 22 31 42
- ◆ Pisu txikia edo buardila hartuko nuke alokairuan, edo etxea konpartituko nuke. ☎ 677 09 70 15 (Mari Carmen)
- ◆ Etxea salgai Arregitorren. 4. pisua. 3 logela, egongela, bainua, komuna, sukaldea eta ganbara. Garajea erosteko aukera. ☎ 943 74 09 57
- ◆ Etxea salgai Mendaron. Berria, altzariekin. 3 logela, sukalde-jangela, komuna eta trastero handia. ☎ 609 96 53 95/650 12 96 05
- ◆ Gasteizen pisua osatzeko pertsona behar da. Gauzez deitu edo mezua laga. ☎ 945 27 42 83
- ◆ Pisu hartuko nuke alokairuan. ☎ 678 840 531
- ◆ Bi logelako apartamentua hartuko genuke alokairuan. ☎ 679 819 314 (Amaia)
- ◆ Soraluzen etxe berritua salgai. ☎ 615 77 99 20

### OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

## Etxebizitzak

## Salerosketak

- ◆ Bikintzako kotxe-silla salgai. Inglesina markakoa. (aulkia, grupo 0, zakuak...) ☎ 636 12 95 43 (Jaione)
- ◆ Play Station 2 salgai. 2 mando, 2 memoria (8MG), motxila, jokoak... 180 euro. ☎ 696 89 60 88
- ◆ Opel Astra TDI familiarra salgai. SS-BJ ☎ 629 63 52 03
- ◆ Ospitalerako moduko ohe artikulatua salgai. la berria. ☎ 943 74 14 55
- ◆ HP ordenagailua salgai. Monitorea, teklatura, arratoia, eskanerra, CPU eta inpresora. 500.000 ptan baloratua. 1800 euroren truke. ☎ 686 22 84 04
- ◆ Opel Vectra 2.0i gasolina, 147 zaldi, salgai. Egoera oso onean. 4 urte. Km gutxi. ☎ 665 731 879
- ◆ Seat Toledo Sport 2.0 cv salgai. SS-AN. 170.000 km. Oso egoera onean, merke. ☎ 617 71 91 21
- ◆ Altzariak salgai. Oso merke. ☎ 620 07 38 93

## Bestelakoak

- ◆ Nafarroa Oinez-era joan zen autobusean 3 giltz agertu dira. Jabea pasa dabil Elgoibarko Izarratik.
- ◆ Betaurrekoak galdu ditut Sigma eta San Roke bitartean. Deitu mesedez. ☎ 943 74 13 48/943 74 44 45
- ◆ Urte eta erdiko artzai txakurra aparitzen da, zaindu ezinagatik. ☎ 677 09 70 15
- ◆ Karitasek arropa garbigailua, sukaldea, hozkailua eta butanozko berogailua behar ditu. ☎ 943 74 15 09
- ◆ Txamarrak beltz luzea galdu da. Bizkarraldean galdera ikur bat dauka. Balore sentimental da. ☎ 660 02 79 76
- ◆ Taberna alokatu edo saltzen da Elgoibar erdialdean. ☎ 656 72 44 01
- ◆ Katu persa galdu da, zuria eta grisa. Saritu egingo da. ☎ 943741460 (Vanesa)

## Lokalak

- ◆ San Bartolome kalean lokala alokairuan. Ez du obra beharrik. ☎ 667 94 24 33 (gauez)

## Partikularrak

- ◆ Ingelesezko klase partikularrak ematen dira. ☎ 656 53 33 90
- ◆ Bibolin eta pandero klaseak ematen dira. ☎ 656 77 42 15 (Amaia)



umeentzako jantziak

**Punta puntako markak**

Santa Ana, 12 • Tel.: 943 74 04 07

**DKNY**  
**KENZO**  
**TIMBERLAND**  
**ELLE**  
**IKKS**  
**NOLITA**



**MEKANOSA**

Errosario, 30  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

## Agurrak

♦ Zorionak **Maria Idiakez**, hilaren 30ean, 18 urte egingo dituzulako. Familiakoen, eta bereziki, Esther, losu, Ane eta Nerearen partez.




♦ Zorionak **Igor!** Zelako politxa zinan txikitari, eh? Eta dagoeneko 27 urte! Ondo pasa. Familiakoen partez.

♦ Zorionak **potxoli**, azaroaren 1ean, 2 urte egingo dituzulako. Familiakoen partez.



♦ Zorionak **Maria**, zure lehen urtebetetzean. Familiakoen partez muxu handi bat.



♦ Zorionak **Aitor Barrutia**, urriaren 31n, 7 urte egingo dituzulako. Gurasoen, eta bereziki, Nerearen partez. Ondo pasa!



♦ Zorionak **aita**, hilaren 26an, 51 urte bete zenituelako. Hector eta Nerearen partez.



♦ Zorionak **Ane Galdos**, azaroaren 3an, 5 urte egingo dituzulako. Familiakoen eta bereziki, aitxixa, amama eta Mariaren partez.



♦ Zorionak **Jon Etxaniz**, bihar, hilak 30, 7 urte egingo dituzulako. Etxeko partez.



♦ She is going to Newent. Ondo pasa kuadrilako partez.



♦ Zorionak **Aitor** eta **Eneko!** Egun ona pasa dezazuela. Familiakoen partez.



♦ Zorionak zuen **24. urteurrenean!** Datorren urtean zilarrezko ezteiak! Etxeko partez.



♦ Zorionak **Mirari** eta **Leire**, urriaren 13an eta 25ean, 18 urte egin zenituztelako. Lagunen partez.

## BEKAK

### Hezkuntza, dokumentazioa eta informatika

Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak, Hezkuntza Ikerketa eta Dokumentazio Zentroan (CIDE) hezkuntza-eremuko ikerketan, berrikuntzan, dokumentazioan eta informatikan espezialistak prestatzeko 42 beka eskaintzen dizkie unibertsitateko titulua duten gazteei. Beken iraupena urtebetekoa izango da, 2005eko urtarrilean hasita, zenbatekoa: 10.520 euro, 12 hilabetetan ordainduta. Epea: azaroak 8

## LEHIAKETAK

### Urola Kosta Irudietan

Udaltalde 21 eta Urola Kostako Mankomunitateak "Urola kosta argazki-lehiaketa" antolatu dute. Aurkeztutako argazkiek Aia, Aizarnazabal, Getaria, Orrio, Zarautz, Zestoa eta Zumaiaiko garapen iraunkorarekin, garapen ekonomikoarekin, gizarte-kohesioarekin edota ingurumenaren babesarekin loturiko gaia izan beharko dute eta formatuari dagokionez, diapositiba, papera edo digitala koloretan, gutxienez 18 x 24 cm eta gehienez 30 x 30 cm-koa. Epea: azaroak 12

## IKASTAROAK

### Boluntarioak prestatzeko programa

Haurralde Fundazioak 15 orduko hiru prestakuntza-multzo osaturiko boluntarioak prestatzeko programa antolatu du, 18 urtetik gorako adina dutenei zuzenduta. Programako multzoak: "Boluntarioen Prestakuntza: aldaketarako gune bat". Donostia, Irun edo Beasainen. "Lankidetzaproiektuen formulazioa generoaren ikuspegitik". Donostia. "Boluntarioen lan-praktikak: esperientzia bat garatzea". Zarautzen. Informazio guztia lortzeko: [www.haurralde.org](http://www.haurralde.org). Epea: azaroak 8

## LANA

### Administrazio orokorreko kudeaketa teknikaria

Arrasateko Udalean Administrazio Orokorreko Kudeaketa Teknikari bat bi urteko eperako kontratatzeko deialdia. Baldintzak: unibertsitateko diplomatuak edo baliokideak, titulua lortu zenetik 4 urte igaro ez badira eta EGAREN edo 3. mailako hizkuntza-eskakizunaren euskarako ezagutza-maila edo baliokide bat izatea. Epea: azaroak 8

### Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundiak ondorengo lanbideetako lan-poltsak osatu nahi ditu: Teknologia Berrien Sustapenerako Goi-mailako Teknikarien lan-poltsa, Laborategiko Erdi mailako Teknikarien lan-poltsa, errenta-kanpainetan laguntzeko Erdi-mailako Teknikarien lan-poltsa, Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarren lan-poltsa, Administrazio Orokorreko Teknikarien (AOT) lan-poltsa. Epea: azaroak 9

### Astialeko begiraleak

Arrasateko astialeko Txatxilipurdi taldeak antolatzen duen Gabonetako Txikilandia Parkean lan egiteko begiraleak kontratatu nahi ditu. Baldintzak: 18 urtetik gora izatea. Epea: azaroak 26



## Farmazia - okindegia

### EGUNEZ

- 29 Etxeberria  
(Santa Ana kalean)
- 30 Bidasolo
- 31** Fernandez
- 1** Etxeberria  
(Errosario kalean)
- 2 Zabaleta
- 3 Etxeberria  
(Errosario kalean)
- 4 Ibañez
- 5 Bidasolo

### GAUEZ

- Etxeberria
- Fernandez
- Fernandez
- Etxeberria
- Zabaleta
- Etxeberria
- Ibañez
- Bidasolo

### FARMAZIAK

**ESCALA**, Rekalde, 1 Soraluze.  
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**,  
Herriko enparantza 4, Garagarza.  
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**, Kalebarren, 9 Soraluze.  
Tel: 943 75 13 84

### OKINDEGIA

**31 igandea** Doña Mercedes  
**1 astelehena** Eizagirre

## 3 EGUAZTENA

**19:00 HITZALDIA**

Gaia: eskubide sozialak  
Kultur Etxean

## 5 BARIKAKUA

**22:00 BIDEO FORUM-A**

Izenburua: "El Jardín de la alegría"  
Hizlaria: Eskarne Larrinaga  
Kultur Etxeko Hitzaldi Gelan  
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea




**22:15 ANTZERKIA**

Antzezlana: "El Decameron de Boccaccio"  
Taldea: Ados Teatroa  
Herriko Antzokian

## Ordu aldaketa larunbatean

Ordu aldaketa egin beharko da, bihar, larunbatetik igandera bitarteko gauean. Urriaren 30ean, beraz, ordubete atzeratuko ditugu erlojuak. Honela, goizaldeko 3:00etan 2:00ak izango dira.



## ERAKUSKETAK

### Eskubide sozialak

Eskubide sozialen inguruko erakusteta izango da ikusgai azaroaren 2, 3 eta 4an Kultur Etxeko sotoan. Bestalde, gai honen inguruko hitzaldia ere izango da azaroaren 3an, eguaztenean, Kultur Etxean (19:00). Azkenik eskubide sozialen aldeko manifestazioa egingo da Eibarren azaroaren 6an, zapatuan, 19:00etatik aurrera.

## ZOKKETAK

### Elkartasun zozketako zenbaki sarituak

Elkartasun zozketako zenbaki sarituak honakoak izan dira. Zenbaki irabazlea: 5.240. Ordezkoa: 15.889. Saria Mercedes Vito furgoneta.



## "5 condiciones"

Zuzendaria: Lars Von Trier & Jorgen Leth.

Antzezleak: Alexandra Vandernoof, Patrick Bauchau, Jorgen Leth.

1967an Jorgen Leth zinegileak 13 minutuko laburmetrai bat egin zuen: "Gizaki perfektua". Bertan, gizakien portaerak aztertzen zituen. Emaitzarekin liluraturik Lars Von Trier ("Baliando en la oscuridad", "Dogville") zuzendariak Leth gonbidatu zuen 2000. urtean istorio hura berriz hartu eta berak proposatutako 5 aldaerekin istorioa berriz konta zezan. Lethek gonbidapena onartu zuen eta bi zinegileek dokumentalei buruz ezarritako arauak hankaz gora jarri eta sormen zinematografikoaren oinarritzko ezaugarriak zalantzan jartzen dituzte.

**ANTZERKIA****“El Decameron de Boccaccio”**

Ados teatroa taldeak “El Decameron de Boccaccio” antzezlan eskainiko du azaroaren 5ean, barixakuan, Herriko Antzokian (22:15). Sarrerak aurrez salduko dira Kultur Etxean, goizez, 8 eurotan.

**IKASTAROAK****Sevillana ikastaroa**

Haizea Emakume Taldeak Sevillana ikastaroa eskainiko du azarotik aurrera. Sevillanez gain runba flamenkoa ere irakatsiko dute. Interesatuak honako telefonora dei egin dezakezue: 659 603 696 (Luisaz galdetu).

**Kzguneko doako ikastaroak**

Kzgunek azarorako doako ikastaroen eskaintza prestatu du. IT Kzguna interneten hasteko ikastaroa (20 ordu) izango da lehenbizikoa, azaroaren 2tik 15era (18:00-20:00) eta azaroaren 15etik 26ra (16:00-18:00). Bertan ordenagailuaren erabilera, nabigazioa, bilatzaileak, posta elektronikoa, Outlook Express-aren konfigurazioa eta erabilera, e.a. irakatsiko dira. Azaroaren 5ean, berriz, “Via Michelinekin bidaiatu” izeneko mintegia izango da 16:30etik 17:30era. Azaroaren 9an, “Flashget” mintegiaren txanda izango da 16:00etatik 18:00etara. Azkenik, azaroaren 29tik abenduaren 3ra Nagusiweb ikastaroa burutuko da. Interneti buruzko oinarriko ikastaroa izango da 50 urtetik gorakoentzat.

**IRTEERAK****Arriaga Antzokira irteera**

Haizea Emakume taldeak Bilboko Arriaga Antzokian ikuskizun eder bat ikusteko irteera antolatu du. Azaroaren 12an, barixakuan, izango da irteera 22:30eko sesioa ikusteko. Guztira 40 sarrera dituztela adierazi digute. Informazio gehiago edo sarrerak lortu nahi izanez gero Pitxintxu dendara jo dezake. Telefonoa: 943 74 32 06 Helbide elektronikoa: pitxintxu@euskalnet.net

**LEHIAKETAK****Postal Lehiaketa**

Elgoibarko Udalak, Gazte Informazio Bulegoak eta Elgoibarko Izarrak 2005. urtea zoriontzeko Gabon Postal Lehiaketa antolatu dute elkarlanean. Postal irabazlea Elgoibarko Gazte Informazio Bulegoak eta Udaleko Kultura eta Euskara zerbitzuek 2005. urtea zoriontzeko erabiliko dute. DBH eta Batxilergoa ikasten duten gazteei zuzenduriko lehiaketak bi maila izango ditu. A maila: DBHko ikasleak eta B maila: LOGSEko ikasleak. Postalen neurria: 15 x 10 zmkoa izango beharko da eta nahi beste lan aurkeztu ahal izango dira. Lanak disketean edo paperean entregatuko dira. Postalak eskaneatu egingo dira eta, beraz, ez dute erlieberik izan behar. Argazki kamara digitala, disc man-a eta pare bat euskal CD eta liburu sorta izango dira sariak. Lanak entregatzeko azken epea: azaroak 23. Informazio gehiago nahi izanez gero eta lanak entregatzeko Elgoibarko Gazte Informazio Bulegora jo: Nafarroa Plaza, 3. Telefonoa: 943 74 14 61. Email: elg.gzerbitzua@terra.es

**ELGOIBAR, Herriko Antzokian****“La Terminal”**

29, barixakua: 22:15  
30, zapatua: 19:30-22:15  
31, domekia: 19:30-22:15  
1, astelehena: 22:15

**“Superagente Cuddy Banks 2”**

31, domekia: 16:30  
**“5 condiciones” (Z.K.)**  
4, eguena: 22:15

**EIBAR, Unzaga****“El Fuego de la venganza”**

29, barixakua: 19:30-22:15  
30, zapatua: 17:00-19:30-22:30  
31, domekia: 17:00-19:30-22:30  
1, astelehena: 19:30-22:15  
2, martitzena: 19:30-22:15  
3, eguaztena: 19:30-22:15

**EIBAR, Rialto****“Crimen ferpecto”**

29, barixakua: 19:30-22:15  
30, zapatua: 17:00-19:30-22:30  
31, domekia: 17:00-19:30-22:30  
1, astelehena: 19:30-22:15  
2, martitzena: 19:30-22:15  
3, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.

**“La Terminal”**

**Zuzendaria:** Steven Spielberg.

**Antzezleak:** Tom Hanks, Catherine Zeta-Jones, Stanley Tucci.

Viktor Naborskiren istorioa kontatzen digu filmak. New York bisitatzera zihoala ekialdeko Europako bere herrialdean estatu golpe bat gertatuko da eta noraezean geldituko da Kennedy aireportu erraldoian. Bere pasaportea jada ez da inongoa eta ez du Amerikako Estatu Batuetan sartzeko baimenik. Bere jaioterrian gerra pasa bitartean aireportuan egunak eta gauak nola pasa asmatu beharko du. Asteak eta hilabeteak pasa ahala aireportuak bere bizimodu edo mikrokosmos propioa duela ohartuko da Viktor.

**ZINEA**





# A

ste honetako bi erretiratu zaharrak **Ana Mari Mugerzak** eta **Julen Zabaletak** laga dizkigute. Argazkiok **Jose Larreategi Zendoia** zenaren hiletan ateratakoak dira. 1943. urtean tailerreko istripu baten ondorioz hil zen Jose Larreategi. Bizi zen artean, berriz, mendizale amorratua izateagatik izan zen ezaguna eta Morkaiko Mendizale Elkartearen fundatzaileetako bat izan zen. Jakinduria itzela zuen mendi kontuetan eta asko lagundu zuen elgoibartarren artean mendizaletasuna pizteko. Bere heriotzaren ostean, Morkaikok beherakada edo etenaldia jasan zuela aipatu digu Julen Zabaletak. Argazkiok joan zen mendeko hileta ospakizunak nolakoak izaten ziren gogoratu edo ezagutzeko balio digute. Plaza Handiko erretiratuan Luistarren kongregazioko bandera ere ikus dezakegu, bertako kidea baitzen zendua. Azkenik, egun N-634 errepidea pasatzen den ingurunea asko aldatu dela egiazta daiteke, nahiz eta Txankakua zubia bere horretan mantendu den.







Z A Z P I  
I N F O R M A T I K A



**Zure arazo informatikoak  
konpontzen ditugu!!!**



- Ordenagailuen salmenta: PCak eta portatilak
- Osagai informatiko eta pieza solteen salmenta
- Bulegorako materiala: CDak, DVDak, tintak, folioak, boligrafoak,...
- Kotsola, bideojoko eta PCrako jokoak
- Ordenagailu eta osagaien konponketa: (faxes, inpresora, monitorea...) dendan eta etxean

P. Muguruza 8, behea  
Tel./Faxes: 943 74 37 87  
E-posta: [zazpi@telefonica.net](mailto:zazpi@telefonica.net)

Aprobetxatu zaitez  
**KZ Mikroenpresentzako** laguntzetaz.



ANTZERKIA

# EL DECAMERON

de Boccaccio



1348. urtean Florencian izurriak gogor jotzen du.  
Edukazio oneko 3 lagun, diskretu eta zortedunek hiria uzten dute  
eta kanpoaldeko herririka batean pasatzen dituzte egunak  
izurritea bukatu arte.

Bitartean egunak pasatzen dituzte txandaka istorio ezberdinak kontatzen.  
Barrea erabiltzen dute heriotzaren antidoto bezala.



**Antzezleak:** Javier Barandiaran  
Josean Bengoetxea,  
Jon Ezkurdia  
Alvaro Garaialde  
Martxelo Rubio



**Azaroak 5, ostirala**  
**22:15ean**  
**Herriko Antzokian**

**"Pulgarcita"**  
THEATRE LICEM U LICE CROACIA  
Nazioarteko Txontxongilo Jaialdia

**Azaroak 28, igandea**  
**16:30ean**  
**Herriko Antzokian**



KULTURA SAILA



FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA



SAREA